



<b>Izenburua</b>	Nola heldu transmisioaren gaiari? Buruntzaldean egindakoak eta ondorioak
<b>Egilea</b>	Pablo Suberbiola Unanue (Soziolinguistika Klusterra)
<b>Data</b>	2009/03/13

# aurkibidea

---

<b>aurkibidea .....</b>	<b>2</b>
<b>1. Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>2. Parte hartu duten erakundeak .....</b>	<b>4</b>
<b>3. Materiala norentzat eta zertarako .....</b>	<b>5</b>
<b>4. Egindako bidea .....</b>	<b>6</b>
<b>5. Ondorioak .....</b>	<b>8</b>
5.1. Lehen urratsa: abiapuntua .....	8
5.2. Bigarren urratsa: Koordinazio Batzordea eratu eta ekintzekin hasi .	10
5.3. Hirugarren urratsa: "Betikoa" egiten badugu.....	11
5.4. Laugarren urratsa: eskualdeko ikastetxeen zabalpena.....	12
5.5. Bosgarren urratsa: ikastetxeen aukerak eta beharrak .....	13

## 1. Sarrera

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa gutxitutako hizkuntza baten egoera hobetzeko oinarrietako bat da. Euskararen kasuan, gaur egun martxan dauden plangintza asko eta askotan lehentasunetako bat da *etxeko transmisio* honetan hobetzeko urratsak ematea.

Beste hainbat lekutan bezala, Buruntzaldeko udaletan ere ekimen asko jarri izan dira martxan transmisio hori indartzeko asmoarekin, gehienbat udaletako euskara zerbitzuen ekimezez.

Buruntzaldea eskualdea Gipuzkoan dago, eta honako udal hauek osatzen dute: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil. Azken urteotan, udal hauek lankidetzan garatzen dituzte euskararen normalizaziorako hainbat egitasmo. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero webgune honetan duzue: <http://euskara.buruntzaldea.org/euskara>

Familia bidezko hizkuntza transmisioaren gaia ere lankidetzan landu izan dute udal hauen artean, eskualdeko ikastetxe eta anbulatorioekin batera. 2005-2006 ikasturtean transmisio hori indartzeko **Egitasmo berri bat** jarri zuten abian. Egitasmo horrekiko interesean bat etorri zen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS), Buruntzaldea mailan ekimen interesgarriak antolatuz gero, EAEko beste eskualdeetara zabaltzeko asmoz.

Buruntzaldeko Udalekin eta HPSrekin batera, erakunde gehiago ere inplikatu dira egitasmo honetan. Beherago, **2. Parte hartu duten erakundeak** atalean ikus dezakezue zeintzuk.

2005-2006 ikasturtean hasita, euskararen Familia bidezko Hizkuntza Transmisioa (FHT) indartzeko asmoz bide berri bati ekin zaio egitasmo honekin. **Orain, 2005 eta 2008 urteen artean egitasmoan zer egin den, nola egin den eta zein ondorio atera diren ezagutzera emateko material bat prestatu da CD formatuan.**

1. irudia:  
CDaren sarrera-orria



Ponentzia honetan **material horren nondik norako nagusiak ezagutzeko aukera duzue.**



## 2. Parte hartu duten erakundeak

Buruntzaldean garatzen ari den egitasmo hau aurrera ateratzeko erakundeen arteko elkarlan bat antolatu da. Alde batetik *Koordinazio Batzorde* bat sortu da, eta bertan sei erakundee-tako teknikariek egitasmoaren jarraipen eta hausnarketa-lan orokorra egin dute. Aldi berean, Buruntzaldeko udalak eskualdeko ikastetxeekin egitasmoaren jarraipena egiten dute.







Ondorengo hauek dira Koordinazio Batzordean elkartzen diren erakundeak eta egitasmoan parte hartzen ari diren ikastetxeak:

Hasierako orria

**Egitasmoaren erakunde sustatzaile eta babesleak:**

<p><b>Buruntzaldeko Udalak</b></p>  <p><b>BURUNTZALDEA</b> Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Umieta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak</p>	<p><b>Eusko Jaurlaritza</b> Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza</p>  <p><b>EUSKO JAURLARITZA</b> <b>GOBIERNO VASCO</b>  KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza DEPARTAMENTO DE CULTURA Viceministerio de Política Lingüística</p>
--	--

**Koordinazio Batzordeko kideak:**

<p><b>Buruntzaldeko euskara teknikariak</b></p>  <p><b>HABEko teknikariak</b></p>  <p><b>Soziolinguistika Klusterreko teknikaria</b></p> 	<p><b>Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikaria</b></p>  <p><b>Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saileko teknikaria</b></p>  <p><b>Gipuzkoako Urtxintza Eskolako teknikaria</b></p> 
--	--

**Egitasmoaren aplikazioan parte hartzen duten ikastetxeak eta anbulatorioak:**

-Buruntzaldeko ikastetxeak:

- Aita Larramendi ikastola (Andoain)
- Arantzazuko Ama ikastola (Astigarraga)
- Egape ikastola (Umieta)
- Elizatxo ikastetxea (Hernani)
- Inmaculada ikastetxea (Hernani)
- Landaberi ikastola (Lasarte-Oria)
- Langile ikastola (Hernani)
- La Salle Berrozpe ikastetxea (Andoain)
- Ondarreta ikastetxea (Andoain)
- Presentacion de Maria ikastetxea (Umieta)
- Sasoeta-Zumaburu ikastetxea (Lasarte-Oria)
- Udarregi ikastola (Usurbil)
- Urumea ikastetxea (Hernani)

-Buruntzaldeko anbulatorioak

2. irudia:  
Parte hartzen duten erakundeak

### 3. Materiala norentzat eta zertarako

---

Esan dugu Buruntzaldean 2005etik 2008ra bitartean Familia bidezko Hizkuntzaren Transmisioa edo FHT indartzeko garatu den egitasmoan zer egin den eta zein ondorio atera diren ezagutzera emateko material bat prestatu dela CD batean.

Norentzat da prestatutako material hau, eta zertarako?

Bi publikori zuzenduta dago:

a) Batetik, gaia hurbiletik ezagutzen ez duten euskara teknikariei, irakasleei edota udaletako zinegotziei. Hauentzat, materialak Buruntzaldean hiru ikasturteotan egin denaren ideia nagusiak ezagutzeko aukera ematen du. Laburpen bat eskaintzen zaie, 30 bat minutuan egin denaren nondik norakoak eta hausnarketa orokorrak ezagutzeko balioko diena.

b) Bestetik, gaia ezagutzen duten euskara teknikariei eta irakasleei. Bai transmisioa indartzeko programak jadanik lantzen ari direnei, eta baita etorkizunean horrelako egitasmoak antolatu nahi dituztenei ere. Horientzat, materialak Buruntzaldean egindakoa hurbiletik ezagutzeko eta gaian sakontzeko aukera ematen du: erabili diren materialak, egin diren ekintzak, gaia lantzeko moduz egin diren hausnarketak e.a.

Material hau norentzat eta zertarako den adierazita, materiala “zertarako ez den” ere jakitea komeni da.

Material hau ez da *gida* bat; ez da Familia bidezko hizkuntza transmisioa indartzeko *egin behar* litzatekeenaren zerrenda bat, inondik ere. Izenburuan adierazi bezala, materialak interesa dutenei ezagutzera eman nahi die *Buruntzaldean nola heldu* zaion gai honi, eta *zein bide* egin den horretarako 2005etik 2008ra bitartean. Baina ez bide hori beste edonorako *eredu* gisa erabiltzeko, baizik eta gaian interesa duten teknikari, irakasle eta gainerakoek esperientzia honen ondorioak eta eskarmentua *eskura* izan dezaten, baliagarri zaien neurrian erabiltzeko.

## 4. Egindako bidea

CDtik ateratako 3. irudi honetan laburtzen da gaia lantzeko egindako bidearen bost urrats nagusiak zein izan diren, parte hartu duten erakundeak nola joan diren osatzen, eta zein tresna berri sortu diren:

*Buruntzaldean Familia bidezko Hizkuntza Transmisioa indartzeko egitasmoa: 2005etik 2008ra egindakoa eta ondorioak*



3. irudia:  
Egindako bidea, erakundeak eta tresnak

Lehen urratsean ikus daitekeenez, Buruntzaldeko udalak izan ziren egitasmoa sortu eta definitu zutenak, eskualdeko ikastetxe zein ambulatorioekin batera.

Bidearen bigarren urratsean erakunde gehiagok bertan parte hartzea adostu zen, *lantaldea* eratuz (Koordinazio Batzordea). Lehen unean Buruntzaldeko udal teknikariek HPS, HABE eta SL Klusterreko kideekin batera osatu zuten Koordinazio Batzordea. Aurrerago hauei gehitu zitzaizkien Urtxintxa Eskolako eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko kideak. Koordinazio Batzordea eratzearekin batera, ekintzak martxan jarri ziren: ikastaroak eta hitzaldiak, batik bat ikastetxeetan.

Hirugarren urratsean FHTa lantzeko moduaz egindako hausnarketa da garrantzitsuena. Zein gurasori eman informazioa? Zein informazio eman? nola? Gai hauei buruzko hausnarketa egin zen egitasmoan, eta hausnarketa horretan oinarrituta material berriak sortu ziren: *Gurasoen Liburuxka*, *Aholku Liburuxka* eta hitzaldiak gurasoentzat. Horiez gain, beren harremaneko hizkuntza ohitura aldatu duten bikoteei buruzko ikerketaren definizio-lana egin zen.

Laugarren pausoan zabalpen bat egin zen egitasmoan parte hartzen zuten ikastetxeetan: ordura arte (2005-2006 ikasturtean) Buruntzaldeko herri bakoitzeko ikastetxe batean landu zen egitasmoa (6 ikastetxe). Pauso horren bidez, eskualdeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara zabaldu zen (6tik 13ra pasa zen horrela) egitasmoan parte hartzeko aukera.

Eta bosgarren pausoan ere ikastetxeekin eginiko lanean jartzen da arreta. Bide honen lehen hiru pausoetan ikastetxeekin *batera* lan egin zela aipatu dugu gorago. Ordura arteko ondorioetako bat izan zen, ez zela nahikoa ikastetxeekin *adostea* gaiari buruz gurasoei zein informazio eta nola eman. Hori baino egokiagoa zela ikastetxeek materialak eta tresnak eskura izatea, irakasleek beraiek erabakitze horietako zein zitzai(zki)en baliagarri eta nola erabili, izan ikastetxeko organoetan edo izan gurasoekiko bileretan eta halakoetan. Modu horretan, egitasmoan sortutako materialak eta zabaldutako informazioa ikastetxeko *ohiko funtzionamenduan eta egituran* txertatzen joateko bideari heldu zaio, "kanpoko" egitasmo gisa hartzea baino askoz egokiago baloratu baita.

## 5. Ondorioak

Gorago ikusi dugunez, 2005-2006 ikasturtetik 2007-2008 ikasturtera artean egitasmo honek eginiko bidea bost urratsetan banatu dugu. 4. irudian ikus dezakezue sortutako materialean nola antolatu den 1. urratsari dagokion informazioa modu laburtuan. Eskema beraren arabera antolatu da gainerako lau urratsen informazioa ere (ikus aurrerago 6., 7., 8. eta 9. irudiak).

Bi zati ditu eskemak: lehenengoan laburtzen dira egitasmoan urrats hori emateko garaian zein izan diren **ALDEKOAK** (aldeko aldagaiak, edo aldeko indarrak), eta zein izan diren gainditu beharreko **ZAILTASUNAK**. Urrats bakoitzari buruzko AMIA tankerako matrize sinplifikatu bat litzateke lehen zati hau. Eta azpian, bigarren zatia: **HARTUTAKO ERABAKIAK**. Bertan laburtzen da zein bidetatik jotzea erabaki den egitasmoan aurreratzeko.

Informazioa laburtzeko eskema hau erabili da 2., 3., 4. eta 5. urratsetan ere.

### 5.1. Lehen urratsa: abiapuntua

1

Abiapuntua: udalen ekimena, ikastetxeekin eta anbulatorioekin adostua

Hasierako orria

Eskema nagusia

#### Aldekoak

- Buruntzaldeko euskara-teknikarien artean, Familia bidezko Hizkuntza Transmisioari (FHT) buruzko esperientzia zabala: teoria eta praktika.
- ➔ **Ikastetxeekin harreman antolatu eta hurbilekoa.**
- FHT lehentasuneko gaia izatea.
- ➔ **FHTri bultzada berri bat eman nahia, familietan eta "bikote hizkuntza"n eraginez .**

#### Zailtasunak

- Lanerako plan bat definitzea: esperientzia bai, baina eredurik ez.
- Ikastetxeei eta (hauen bidez) gurasoei egitasmoa nola aurkeztu definitzea eta ongi koordinatzea.
- Anbulatorioetako emaginekin lankidetzat antolatzea, "gurasogai" diren etara iristen saiatzeko.

#### Hartutako erabakiak

- FHT indartzeko egitasmoa definitu eta martxan jartzea.
- ➔ **Ikastetxeei eta anbulatorioei proposamena luzatu eta beraiekin lan egitea.**
- HPSri Buruntzaldeko lantaldea sortu eta plan pilotu gisa garatzeko proposatzea.
- ➔ **Egitasmoaren aurkezpen-materiala eta gurasoen galdetegia prestatzea ikastetxeetarako.**




Txosten honen 3. atalean aipatu dugu, prestatutako materialak bi mailetako irakurketa eskaintzen duela: lehena laburragoa, gaiaren nondik norakoak ezagutzeko balio duena, eta bigarrena sakonagoa, egitasmoa hurbilgotik ezagutzeko balio duela.

4. irudian azaltzen diren puntuetako batzuk kolore berdean nabarmenduta daude eta gezi bat dute hasieran. Puntu hauek dira bigarren mailako irakurketa sakonagorako aukera ematen dutenak. Horietan klikatuta, fitxak eta dokumentuak zabaltzen zaizkigu, egitasmoan egin dena hurbilgotik ezagutzeko aukera ematen digutenak.

Txosten honetan dokumentuak aztertzeraz sartuko ez bagara ere, azpiko 5. irudian ikus dezakezue zein modutan antolatu den informazioa. Adibidez, 4. irudira itzulita, ikus dezakezue *Hartutako erabakiak* atalean, bigarren puntua nabarmenduta dagoela geziarekin, eta horrela dio: *Ikastetxeei eta anbulatorioei proposamena luzatu eta beraiekin lan egitea*.

- Puntu horretan klikatuta, dokumentuen zerrenda zabaltzen zaigu; kasu honetan lau dokumentu (ikus 5. irudia).
- Eta zerrendako dokumentu batean klikatuta, berriz, dokumentu horri dagokion *fitxa*.
- Fitxak dokumentuan aurkituko dugun informazioa aurreratzen digu, eta interesatzen bazaigu, *dokumentua* puntuan klikatu eta dokumentua bera kontsulta dezakegu.



**Etxeko hizkuntzan eragiteko egitasmoa. Irakaskuntzako eragileekin lantzeko zirriborroa**

**Data:** 2004ko azaroa

**Dokumentua:** Etxeko hizkuntzan eragiteko egitasmoa. Irakaskuntzako eragileekin lantzeko zirriborroa.pdf

Txosten honetan Buruntzaldeko euskara teknikariek eskualdeko irakaskuntzako eragileei luzaturiko lehen proposamena jasotzen da.

Proposamen hau aztertu ondoren urrats batzuk ematea adostu zen 2005eko maiatzerako. "Etxeko hizkuntzan eragiteko egitasmoa 2005-06 ikasturterako esku hartze proposamena ikastetxeetan" izeneko dokumentuan jasotzen da adostutakoa.

Egitasmoaren aurkezpen-materiala eta gurasoen galdetegia prestatzea ikastetxeetarako.

Aurrera

5. irudia

Modu honetan, hurbiletik ezagutzeko aukera dugu, *Ikastetxeei eta anbulatorioei proposamena* nola luzatu zitzaizen, horretarako zein txosten erabili diren eta abar.

## 5.2. Bigarren urratsa: Koordinazio Batzordea eratu eta ekintzekin hasi

1. urratsari buruzko informazioa ikusi dugu gorago 4. irudian: Buruntzaldeko egitasmoa bera martxan jartzeko zein *aldeko* eta *zailtasun* egon ziren, eta zein *erabaki* hartu ziren aurrera egiteko.

Eskema bera erabiliz, 6. irudian dituzue laburtuta bigarren urratsari buruzko ideia nagusiak: zein izan ziren Koordinazio Batzordea eratzeko eta ekintzak antolatzen hasteko *aldeko* puntu nagusiak, zein *zailtasunak*, eta horiek kontuan izanda zein *erabaki* hartuta egin zen aurrera egitasmoan.

2

Lantaldea eratu eta egitasmoa birdefinitu ☒

### Aldekoak

- Buruntzaldeko teknikariek plana landuta izatea.
- ➔ **HPSk gai honetan esperientzia berri bat garatzeko interesa eta emandako babesak .**

### Zailtasunak

- Lau erakunde koordinatzea egitasmo batean: FHTari eta planari buruzko ikuspegiak bateratzea.
- Planean aurreikusitako "tresna berriak" nola sortu definitzea.

### Hartutako erabakiak

- ➔ **Gurasoentzako ikastaroak antolatzea ikastetxeetan: kantu- eta jolas-ikastaroak, eta ipuin-ikastaroak.**
- ➔ **Anbulatorioetako erditze-ikastaroetarako FHTari buruzko hitzaldia prestatu eta ematea .**
- Lantaldean, "tresna berriak" nola sortu eta nola zabaltu gaiari buruzko hausnarketa martxan jartzea.

Atzera

Aurrera

6. irudia

### 5.3. Hirugarren urratsa: “Betikoa” egiten badugu...

7. irudian duzue laburtuta hirugarren urratsari buruzko informazioa. Kasu honetan, aurreko bi urratsetan erabilitako eskemari atal berri bat gehitzen zaio: **LANTALDEKO HAUSNARKETA**. Laugarren eta bosgarren urratsei buruzko laburpenetan ere aurkituko duzue atal hau.

2005etik 2008ra bitartean Buruntzaldean FHT indartzeko garaturiko egitasmo honetan, gaiari buruzko *hausnarketari* egin zaio leku bat. Koordinazio Batzordeko teknikariek aztertu egin dituzte azken urteotan han eta hemen familia bidezko transmisioa indartzeko egin diren ekimenak eta horien emaitzak. Hausnarketa hauen abiapuntuetako bat honako hau izan da: beste gaietan bezala, honetan ere, *“betikoa” egiten badugu..., orain arteko emaitzak jasoko ditugu*”. Edo antzekoak.

Ikuspegi horretatik FHT lantzeko zein berrikuntza eta hobekuntza egin daitezkeen aztertu da, eta 7. irudian, *Lantaldeko hausnarketa* puntuan dituzue laburtuta Batzordean landutako bost oinarri, tresnak sortzeko eta ekintzak antolatzeko oso kontuan hartu direnak.

3

Hasierako orria

Eskema nagusia

Atzera

Aurrera

Zein gurasorengana?, Zein mezurekin? Nola?, Ohitura aldatu duten bikoteen esperientzia

**Aldekoak**

- Bide berri bat lantzeko adostasuna: betikoa eginda, orain arteko emaitzak jasoko dira.

➔ **HAUSNARKETA** abiatu lantaldean.

**Zailtasunak**

- Eremu pribatuan eragin nahi izatea: nola iritsi? Zein mezurekin?...
- “Euskara, euskara, euskara” mezua gainditu beharra.

---

**Lantaldeko hausnarketa**

- “Hizkuntzarena” aparteko gai gisa landu beharrean, familien ohiko errealitatearen testuinguruan lantzea.
- Haur txikien guraso askoren intereseko gai bat: emozioen kudeaketa familiaren egunerokotasunean.
- Gurasoei “zer egin behar luketen” esan ordez, beren hizkuntza-jokaeraz pentsaraztera eraman ditzaketen dinamikak sortzen saiatu.
- Dinamika hori sortzeko tresna berriak ere behar dira, baina prozesua bera da gehien zaindu beharrekoa.
- Ikastetxeak gai honetan subjektu aktibo gisa hartzea, ez “bitartekari gisa”.

Hartutako erabakiak

- ➔ **Aholku-Liburuxka** sortzea (eus/gaz), gurasoentzako informazio eta aholkuekin.
- ➔ **Gurasoentzako Liburuxka** sortzea (eus), familia euskaldunetako eguneroko egoerak, Emozioen ekologiararen oinarriak eta hizkuntza lotuz.
  - Bi liburuxkak ezagutzera emateko ➔ **hitzaldiak** antolatzea ikastetxeetan (Kike Amonarriekin).
- ➔ **Anbulatorioetako hitzaldiekin jarraitzea**, Osakidetza bidez eskualde gehiagotara zabaltzen saiatuz.
  - Bikotean hizkuntza-ohitura aldatu duten bikoteen esperientzia ezagutzea ➔ **ikerketa bidez**.

7. irudia

#### 5.4. Laugarren urratsa: eskualdeko ikastetxeen zabalpena

Laugarren urrats honetan, egitasmoan parte hartzen zuten ikastetxeen kopurua zabaldu egin zen. Ikastetxeekin ez ezik anbulatorioekin ere lan egin da egitasmo honetan, baina anbulatorioetan hasitako bidean ezin izan da garapen handirik egin, eta ondorioz egitasmoa batez ere ikastetxeetako irakasle eta arduradunekin landu da. Hori horrela, laugarren urrats honetan, eta bosgarrenean, ikastetxeek hitz egiten da soilik.

Laugarren urrats honetan bi gai nagusi ditugu: batetik ikastetxe-kopurua zabaltzea eta bestetik, bigarren eta hirugarren urratsetan martxan jarritako ekintzen balorazioa (hitzaldiak, kantu- eta jolas-ikastaroak, liburuxkak...).

Bestalde, hirugarren urratseko laburpenean, *Lantaldeko hausnarketa* atalean ondorioetako bat hau da: *Ikastetxeak gai honetan subjektu aktibo gisa hartzea, ez "bitartekari gisa"*. Laugarren urrats honetan *hartutako erabakietako* bi zuzenean daude lotuta ideia horrekin. Batek, irakasleei gai honetan *tresnak* eta *prestakuntza* eskaintzea, eta bestetik, gurasoei informazioa zuzenean ematen saiatu beharrean, arreta irakasleen premietan jartzea.

4

Hasierako 6 ikastetxeetatik eskualdeko guztietara zabaldu

Aldekoak

- Hitzaldietan irakasle ugari, gaiarekin interesa.
- Kantu- eta jolas-ikastaroek oso erantzun ona.

Zailtasunak

- Hitzaldietan ➤ guraso gutxi.
- Ipuin-ikastaroek ➤ erantzun txikia.
- Gurasoentzako liburuxka nola landu gurasoekin?

---

Lantaldeko hausnarketa

- Ikastetxe bakoitzeko guraso-tipologia eta haiekiko harremana ezberdina da: tresnak eskaini, ikastetxeak zer eta nola erabili erabakitzeko.

Hartutako erabakiak

- Egitasmoa hasierako 6 ikastetxeetatik ➤ eskualdeko guztietara zabaltzea (beste 7).
- Ikastetxeei ➤ tresnak eskaintzea (Erreminta-kutxa), ikasturtero bakoitzak bere aukera egin dezan.
- Ikusirik gurasoei informazioa zuzenean ematea zaila dela, irakasleen prestakuntzan lantzea.

Atzera

Aurrera

Hasierako orria

Eskema nagusia

## 5.5. Bosgarren urratsa: ikastetxeen aukerak eta beharrak

Eta egitasmo honetan hiru ikasturtetan egindako bidearen azken urratsa bosgarren hau dugu. Aurreko urratsean aipatu bezala, bosgarren urrats hau erabat dagokio eskualdeko ikastetxeekin egindako lanari.

*Lantaldeko hausnarketa* atalean hiru ondorio nabarmentzen dira urrats honetan, ikastetxeekin FHT lantzeko kontuan hartu beharrekoak. Eta ondorio horietan aipatzen diren premiei erantzuten saiatzeko bi tresna berri dira *Hartutako erabakiak* atalean aipatzen direnak: alde batetik *Hitzak ez du antzik jaboiarekin DVDa*, eta bestetik irakasleei zuzendutako *hizkuntza-transmisio ikastaroa*.

DVDaren bidez erraztu egin nahi da eskolako ohiko egoeretan irakasle artean zein gurasoekin FHTri buruz hitz egitea eta iritzia trukatea. Ikastaroa, berriz, irakasleek gaia ikastetxean eta gurasoekin nola landu dezaketen definitzeko lagungarri izan daiteke.

5

Irakasleen interesa eta gaia lantzeko tresnen beharra

Hasierako orria

Eskema nagusia

### Aldekoak

- Ikastetxeen interesa gaiarekin.
- Banatutako informazioaz eta gaia lantzeko proposatutako bidez iritzi ona

### Zailtasunak

- FHTren gaiaz oso gutxi hitz egiten da ikastetxe-guraso artean.
- Eskolak, erakunde gisa, gaia "bere" ez egitea.

**Irakasleek gurasoei gaiari buruzko irizpideak emateko ziurtasunik ez sentitzea .**

---

### Lantaldeko hausnarketa

- Eskola bidez FHT lantzeko, eskolaren egituraren eta helburuetan txertatu behar da (ez gai berezi gisa landu).
- Hizkuntza-ohiturei eta FHTri buruz hitz egitea erraztuko duten tresnak eta egoerak behar dira (bai irakasle-guraso artean eta bai irakasle artean ere).
- Gaiaren prestigio soziala mugatua da (maiz, deserosoa). Irakasleek gehiago hitz egingo lukete horretaz, ikastetxean adostutako irizpideak eta informazioa eskura izanda (beste gaietan dituzten bezala).

### Hartutako erabakiak

- Hitzak ez du antzik jaboiarekin DVDa** prestatu eta ikastetxeetan banatzea (irakasleentzat eta gurasoentzat).
- Ikastetxea eta familietako hizkuntza-transmisioa ikastaroa** bideratzea IRALEtik (irakasleentzat).

Atzera



---

Soziolinguistika Klusterra. Martin Ugalde Kultur Parkea · 20140 Andoain (Gipuzkoa)  
T\_ 943 592 556 · F\_ 943 304 151  
[pablo@soziolinguistika.org](mailto:pablo@soziolinguistika.org) · [www.soziolinguistika.org](http://www.soziolinguistika.org)

## Nola heldu transmisioaren gaiari? Buruntzaldean egindakoak eta ondorioak

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarriketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena: